

MANEX NIRE OROIPENEAN

JOXE AZURMENDI

Azentu gozo bat zeukan, zigarro txar batekin ezkerrean, eta aurpegi on borobil bat, irribarrez begi txikiak, eta beso osoa berarekin eramaten zion eskuineko eskuarekin keinu zabal pausatua —habitoarekin bazegoen guztiz gain— mintzoari espazio doia markatzen airean. Manex nik horrela dut gogoan. Eta ohartzen dut, orain, ezagutu ez zutenentzat haren orri batzuk baino geratzen ez zaigunean, zer Manex gutxi geratzen horietan zinez, ikusi berritan solas-taldeko beste bat gehiago jende artean irudi zuen eta izpiritu arras berezi maiztagarria errebelatuz emeki-emeki aritzen zen Donapauleko frantziskano apal fazeta-aberats eta harrigarri hængandik. Eta «Gaztarorat doi-doi heldua/ Etxetik joan behartu izan

zitzia kan eskoletarat», aurkitzean orain haren paperetan, «Diotenaz gain oraiko mendean/ Ez dela jakitaterik gabe ibili behar!», irakurtzen dugu eta, esaldi sinplearen azpian, haren hitzaren doinu bere-bere aspaldiko hura berpizten zaigu berriro, bera ezagutu genuenoi, testu barnean ttortta-ttortta urrungo marmarizo bizi, edozein esalditan ironia ozpin bat eta sentimendu delikatuena, ezaxola antzean, armonizatzen beti, ezer pasako ez balitz bezalaxe, irribarrea inoiz galdu gabe.

Antigualeko jakintsu moderno bat ematen zuen askotan. Asiako santu bat bezala, bera zen gizon harrigarria beste misterio gabe baina.

Manex, txikitan menditik hirira transplantatua, bere lurra-
ren maitalea, Freuden obran aditua, mota guztietako papere n
irakurle gosea, teinka milaren armonia zail eder bat izan da, izan
e re, armonia gutxiko bere denboran. Egia esan, gizarte hone-
tan ia mirariak bezain gutxitan ikustea tokatzen den, krisi-ga-
rai honen kontraesanen, eta norbere barne a ren interes minen
eta masa-mugimendu erradikalenetako ideologi en, borroka
sozialaren eta nazionalaren, tradizioaren eta modernia ren, biho-
tza ren eta liburuaren, bokazio intimo erlijiosoaren eta kultura
laizista ezeren errespetu gabeko baten artean etengabe pozoin-
tzen zaizkigun —geure barnean gehien-gehiena, beste inore-
kin baino askoz gehiago— oposizio guztien, armonia zabal per-
sonalena eta beteginena. Manex borroka eta lana izan da,
fedea izan da, aholkua, laguntasun isila, militantzia, igurikapena,
arma bat eta kandela bat ilunpean: sumaren suman, poesia.

Idatzi baino, egunean egunean inkarnatu eta bizi egin bai-
tzuen poesia kontsekuenteago, bere meditazio, zerbitzu eta
borroka-existentzia ez oso luzean.

Bere barru horretan deskubritu zuen Manexek Euskal
Herria, errumes hori, poeta dela. Barnean bera zen euskaldu-
nean ikusi zizun. «Holaxe, hil nahiko digute poeta den geure
herri librea..., baina behin ere ez da entzun poeta herri bat
holaxe hiltzen denik...» Poesia esperantza da. Bere barruko
maitasunean aurkitu zuen esperantza. Esperantza arrazoia
da. Baina da arrazoia, lehenik borroka delako, lana delako,
matxinaldia eta iraultza eta gorbizia delako. «Poeta den herri

isildu honetan» hasita dagoen iraultza, ez dakiguna zenbat urte edo ehunurte eskatuko duen, baina hasi duguna, ezerk ez baitu geraraziko engoitik.

Kasu, tolerantzia pertsonifikatua bezala zen Manex bera pertsonalki. Esan beharra dago apika, propagandak honez gero iraultzaileak beste gabe intolerantiaren deabruzat estanpatu nahi izaten dizkigun honetan. Tolerantea zen hain zuzen sakon-sakonki, ez tolerantziaren komediantea, «guztia-barka» edo guztia berdin bost axola. Bere lekua garbi zeukan. Beraz, tolerantzia ez zuen egiten «birtute» bat, naturaltasun guztiko espresioa baizik, hurkoa errespetatzeko ideietan edo kredoa adostasuna behar ez duenaren manera irekian (askotan ez ote da tolerantzia «berdin pentsatzen dutenekin» izaten zailena?), diferentziari horregatik uko egiten ez dionaren fermutasun guztiz halere.

Parentesi bat izan da hori. Manexen kezkek bestela ez baitira «ariketa sozialen» eta Rambouillet edo Ajuriaeneako gortesiaren kunplimendu txukunean egon. «...Neurriak badira oso finkatuak. Irakasten eta ikasten direnak. Beraz jakin eta segitu behar direnak. Neurriak badira kutxa baten barruan poesia errexiarazteko. Neurriak badiren bezala lanegiteko, familiatzeko, eta hil ondoan ehortzia izateko. Neurriak ez dira gainditu behar. Bestela, kasu zuri». Ordea Manexek hain zuzen gizakiaren bizimodu zakurra estekatzen duten neurriok guztiok, ez derrigor apurtu, baina hor bazterrera utzi, nahi baititu: «Eta poesiak, orduan, amets egiten du nola kanta, nola dantza, nola irriegin, nola josta, nola ere burruka... bizitzea libro bali-tzaio. Eta poesia-amets bat agertzen da anitzetan edozeinen begietan, ezpainenetan, eskuetan, zangoetan, gorputz osoan...» Ameslari horiekin zegoen Manexen ametsa, poesia.

Prometeo historia zaharrea Zeusen burdinetan egon bada lotuta, Zeusen burdintzarrik ez zaigu falta orain ere (Parisekiko menpetasun ekonomiko eta politikoak, esaterako, Iparraldea odolusten, burdin barbaro bezala baino ez zituen juzkatzen); baina mundu sutil konplexu bat da, batez ere, bere arima barruraino mila kate meheren sare ikustezin batean presoago daukana gizaki modernoak, bere hezkuntzaren, bere erlijioa-

ren, bere obligazio zibilen kontzientziaren presondegian. «Presuner ohi» heroikoa, bere heroismoaren ipuinean orain preso, adibide bat besterik ez da beste mila artean.

Manex, psikologia estudiatu zuena, baina bere jendea bihotz arkin ezagutzen zuena, abertzalea eta borrokari soziala izan da. Ez kontzertu ekonomikoren baten edo estatuturen baten ametsarekin. (Eta ez dut esaten horiek muntarik ez dutela). Mundu berri baten helburu zabalagoarekin baizik. Mundu berri bateko Euskal Herriaren esperantzarekin. «Zuberoako mendietako/ neska liraina/ Kristina»ri hala aitortu dio behin, «heure hemezortzi urteekin/ aurtengo bedatsian/ ipuiak kondatzen hasi/ haizena»:

Egunen batetan, taigabe,
hirur ehun mila ipui
asmatuko ditun eta kondatuko
heure lagunekin eta besteekin
gitarraren musika zoragarriaz...
hirur ehun milako jendetze honek
biziaren pilpira sendi dezan
bere hezur-mamietan...

«Pariseko maiatza» baino lehen idatzi zuen Manex gazteak Parisen bertan: «Eta nere baitan sumatzen dut/ kitzi-kitzi/ euskaldun berri bat sortzen,/ euskal populu berri bat itxura hartzen:/ Europan!/ Munduan!» Ekonomia azkarrago bat edo administrazio politiko lurkartan hobeki apailatu bat soil baino gehiago begiesten zuen etorkizunerako. Libertateak, esanahia, Errepublika eta poltsa baino handiagoa zuen harentzat. Amesti bat ote zen?

Amestia bai, noski; zakur-amestia, ez. Herri eta jende honentzat egiten zuen amets. «Titulurik ez duen herri honen mailan/ Famarik ez duen herri honen barruan/ Ohorerik ez duen herri honen apalean» paratu zen.

Beste mila gauzatan hain diferentea, funtsezko gauza batzuetan Manexek adin ia bereko Arestirekin bat-bat egiten zuen. Herriaren bion kontzeptuak oso-oso konkretuak izan dira. Are, esango nuke, Aresti oraino bere egiazko herriaren bila zebi-

lela Hegoaldean, Manexek berea oso goizik ongi aurkituta zeukala, herriz herri maiz pasa eta erreparasatzen zuen Iparralde osoko emazte eta gizon-jende konkretuan, gazterian bereziki, eta baita Hegoaldeko lan eta kultura-mugidako lagunetan ere, borroka armatuko militanteak ahaztu gabe. Manexen herria «euskal herri» pobre langilea izan da, «elea ito» diotena, historia ukatu, lana limosnan eskatzera edo emigratzera kondentatu, lurra pezaz peza saltzera hertsatu:

*Aurten ere
gure herri langile honen izerdiaz
busti dituk pentzeak, alorrak,
zuhaitzen hostoak...*

*BAINA
herri xume honen haurretan
zenbat
ez ote dira lanik gabe gertatu?*

*.....
Aurten ere
iguzkiak berotu zizkiguk
geure mendiak, zelaiak, itsas-hegia...*

*BAINA
herri xoragarri honen erraietan
zenbaten begiak ez ote dira lanbrotu
han edo hemen
etxalde edo lur peza bat
nonbaitik etorriek erosi dutela
jakitean?*

Manexek bere herri konkretuarekin sentitu du, sufritu du. Bere barruan haurtzaroko iturriaren melodia isilezina bezala ttortta-ttortta, taupa-taupa bere baitan somatzen zuen herri horrekin («Hiri beha eta hire lagun, lurpez-lurpe/ ezin asper-tuz niabilak, zoratua, oren luzeak»). Hain zuzen, abertzaleek «herri abstraktu» batekin operatzen dutela, erasiatu ohi dutenei, begien aurrean Manex erakusteko ematen du gogoia, bera bakarrik baita nahikoa erantzun: bakarrik, alferrik izango litzateke, horiek ez dute euskaraz irakurtzen. Guretzat, aldiz, inpresionantea da beti, Manexen ideiak eta utopiak zein «hara-

gizkoak» diren; eta lurra, Péguyren «aberri karnala», jendea, lana, zein diren bilduak denak Manexen idealetan eta utopian, beti hain bere-bere izan duen armonia gozoan, bake berri baten etxegintzarako asmotan.

Borroka armatu²ten eta eusten ziola —ez, ez dago paradoxarik—, ez dakit zenbateraino den egun ezaguna («nire gudu lagunak/ mendiz-mendi doatzino/ haizatuak, tirokatuak, gartzelatuak,/ zanpatuak»), baina garrantzikoena ere agian ez da horixe. Manex iraultzailea izan da (horregatixe, inoiz ez da fanatikoa izan). Hau da, Manex antikapitalista izan da, esaterako, edukinik gabeko moda-hitzetan ez geratzeko. Garbi eduki du kapitalismoa gainditu beharra. Nola? Hori beste puntu bat da. Nolanahi ere kapitalismoa ez da humanoa. Basakeria hutsa da. Horrek ez du esan nahi sistema hobe bat eskuan badaukagunik. Eta honek, oster, ez du haren basakeria ezertan gutxitzen. Manex autogestioaz interesatu da, kooperazioaz, «aurpegi gizatiarreko sozialismoaz». Bilatu egin beharko da formula... Baina aktiboki bilatu, borrokan eta lanean iraunez, egunean-egunean, konfidantza osoa edukiz, historia joango dela sortuz lanaren jabe langilea eta herriaren nagusi herria bera bihurtuko duen formula, bat-batean ez bada, emeki-emeki hainbat denbora eta langarrenean.

Hori da, etengabeko lanean eta borrokan, gizadiaren poemagintza handia; hori da denon artean egiteko euskal poema nazionala («Poesia drama bat da eta giza errealitateaz beti mintzo da»): askatasun humano bat, geure askatasun bat, geuk egina. Iraultzak, horrela, jainko ahaltsu baten *fiat* haserre sutan kreatzailearena baino, herri xume baten Martxa Luzearen irudia hartzen dizu. Konformista, historiak egiten du, berak ez du historia egiten. Holakoa, euskaldun gehiegi egon da. Orain, ordea, «xutitu gaituk/ xutik egonen gaituk», Euskal Herriak bere eskuan nahi du hartu bere geroa. Hasi da martxan, ez dute geraraziko. «Ez dut maite barne hertsu eta hetsu batean/ gakoturik edo, zakurra bezala, estekan egotea», esan du Manexek. Jarrai, jarrai —«Maite dut urratsa eta bideko errautsa!»— mundu berri batera bidean, askatasunaren erai-kuntzan, hori baita herri baten *poiesis* autentikoa.

Arren, poesia ez da zu eta ni bezalakoetarik kanpo gertatzen. Gurekin sortzen da. Gugan bizi da. Bulta hontan ohartua naiz laborariak, langileak, ofizialeak, beren eskuez materia hunkitzen, erabiltzen eta moldatzen dutenak, poetak direla. Beren begiez, beren beharrez, beren mihiatz izadia eta izakiak ikusten, entzuten eta jastatzen dutenak, poetak direla. Nere anaia laborariak eta ofizialeak, aspaldian ohartua naiz, poetak direla beren urratsetan, beren lanetan, beren inguruetan, beren asmoetan, beren gustuetan, beren eleetan. Nere sort-herriko laborariak, Bilboko ala Donostiako ala Mauleko langileak beren fabriketan, artzainak beren mendietan, arrantzaleak itsaso gainean, ohartua naiz langile mota guziak poetak direla. Kexatzen direlarik, manifestazionetan elkarri tinki-tinkia lotuak, karrikaratzen direlarik ala, besta egunetan, ostatu eta plazetan edo berdin gure elizetan alaiki biltzen direlarik, gure herriko langile mota guziak, poetak direla nik ongi badaikit. Eta poesia ez dela soilki sentimendu bat. Tripako min bat da: intziri, garrasia, oihi eta otoitz! Burruka baten elea da: gure kasuan, bi parte puskatua izan den herri langile baten elea; bi mende hautan zapaldua eta herrestan ibilia izan den herri langile baten mintzoa. Egia erran, hori zaie zenbaitzuri ez gustatzen gure poesian. Nahiago zuketzen errorik gabeko arbola baten itzala, hotzak hilik erortzen den txori baten azken kantua, bizia galdurik ixiltzen den herri baten azken hasperena... Kontzientzia lasai, zenbaitek hori bera nahiko zuten gure herri langileari gertatu balitzaio. Baina gure herri langileak emeki emeki sortu ere du bere burruka elea. Poesia burruka bat da, bere buruaren jabe izan nahi duen herri langile baten elea; bere manifestazionetan, bere teatroetan, bere bertsolari saioetan, bere kantaldietan, bere toberetan, bere ikastoletan, bere alorretan, bere uzinetan, bere portuetan, bere elizetan, bere artist lantegietan, bere karriketetan... daraman bere burrukaren neurriko elea».

Manexek, bera zen bezalakoxea izanez, eta pentsatzen eta sentitzen zuen bezalaxe pentsatuz eta sentituz, egin du sintesia. Letek, esate baterako, eta belaunaldi horretan halako askok, bere ideia politiko eta sentimentuen artean eta fede erlijiosoaren artean konfliktu jasanezin bat aurkitu du, eta hala protestatuz kantatu du. Leteren kontraohartzun bat, kuriosoa da, bi frantziskotarrek kantatu dute, Manexek eta Gandiagak.

Badakigu, borrokari lotzeko ez dago kristau fededuna izan beharrik: baina Manex fededuna zen. Ez dago haurtzaroko

pentze, iturri, supazterrak oroitu eta maitatu beharrik; bere belaunaldiko gehienak orduantxe «hiritarrak» eta unibertsalak agertzeko permatzen ziren: baina Manexek Euskal Herriko loreak, arbolak, bideak, bere lagunak bezala maitatzen zituen; eta haurtzaroko iturriak, pentzeak, beren izen propioekin —Putzunde— zituen oraino bihotzean. Eusko lur epelaren sentimendu handi bat zuen barru-barruan. Gizakiak eta lurra familia handi bat bezala ziren, loreak eta umeak, laborariak eta pentzeak, abereak, izarrak, iturriak, lantresnak, hego-haizea. Jendearen injustiziak, nigarrak —«neure herriko lanak, izerdiak, nigarrak»— lurraren sufrimendua bezala sentitzen zituen. Lurraren historia tragikoa bezala ikusten zuen gizakiaren historia. Eta munduaren bere ikuskera, sentimendua, konpromezu soziala, borroka abertzalea, bere fedearekin biltzen eta argitzen zuen dena, sintesi pertsonal handi batean. Sintesi hori bezala dago niretzat Manex, bere irribarre txikiaz beti zigarrotxar batekin, nire oroipenean, armonia pertsonala, ideologikoa, estetikoa, erlijiosoa. Hain hurbilekoa eta hain miresgarria halere egiten zuena. Seguruena hor zegoen, azentu gozo harenekin, bere maitagarritasun zohardi haren sekretu guztiz partikularra.